

NATURAREN MINTZOA¹

“Naturak badu bere mintzoa, eta naturari erreparatzea nahitaezkoa dugu, basora sartu, eta sutarako egurra besterik ikusten ez duenaren jarrera aintzakotzat hartu nahi ez badugu behintzat”².

Eguraldiaz hitz egitea gauza guztiz bidezkoa, obikoa eta tipikoa da. Izan ere, gutxi izango dira horrek kezkatzen ez dituenak. Kezkatu ez eze heldurtu ere bai, ekaitz itxura hartzen duenean, uholdea, harria, kazkabarra, izozte eta elurteak nabiz lehorre luzeak direnean. Horretaraino heldu gabe ere, zeresan ugari ematen du eguraldiak. Pertsona isilak, hitz gutxikoak ere biztun biburtzen daki. Jende artean sarturik, elkarri begira bizketan nor hasiko, mutualdia nork hautsiko gaudenean, eguraldiak laguntzen digu hizpidea aurkitzen eta nondik edo handik hasten. Ez, ez da izango bizketa oso jantzia, dotorea, originala, baina hasteko, solasari ekiteko balio digu. Gai mamitsuagorik, biziagorik ez dugunean, helduleku ona izan obi da eguraldiarena. Gainera, eguraldiaz hitz egiteko guztiok gara eskudun; izan ere, hein batez, batzuk gehiago beste batzuk gutxiago, guztiok bizi gara haren mende. Gu geu inguratzen eta biltzen gaituen auzo hurbila dugu.

¹ ZABALA, Pello: *Naturaren Mintzoa* (Egunez egun, sasoi gurrpilean), Irun, 2000 (Alberdania).

² Ibid. (Azalaren barne aldean).

Egunero behin, bi edo hiru aldiz entzuten diegu gai horretako aditu eta jakintsuei. Egunero behin, bi, hiru... edo hamar aldiz aritzen gara gaizki esaka, aditu usteko horrek gure iritziz buts egin duelako. Izan ere, pronostiko hauek matematikatik baino apustutik gehiago ez ote duten nago... Arantzazuko aro-ikerleak berak hau dio bere liburuaren sarreran: Eta eguraldiak apenas duen mintzorik: itxura franko, horixe! Eta beheraxeago honela adierazten digu ofizio horretan aritzeak dakarren asmatzeko nabiz ez asmatzeko arriskua: Nik neronek (...) goizero itxura hoberenaren aldera jokatzen dut asmatzeko aldioroko trabesean. Meteorologia-aurrerapen guztiak lagun izanik ere, egunero baitakar eguraldiaren itxurak apustua eta tamaina dezenteko asmabidea.

Noizbehinka liburuetan barrena ibilaldira bat egiteko irrikaz izaten naiz eta oraingoan idazlan honen izenburuak adierazten duena hartu dut esku artean: Pello Zabalaen NATURAREN MINTZOA. Herri-jakintzaren eskuliburu gozoa dugu. Azkueren Euskalerraren Yakintza dakarkit gogora. Baina Azkueren lan handiaren ondoan, beste hau, nahiko zabala izanik ere, laburtua, gaurkotua eta aro-ikerle finaren senez galbahetua da.

Herri-jakintza eta pentsaera ageri zaizkigu izadiarekin eta eguraldiarekin loturik. Uste dut, egileak, beren-beregi saihestu duela meteorologo modernoaren jakintza teknikoaren barrunbeetan sartzea. Halako pintzelkadak ere ageri dira, baina kontuz eta dosi txikitik. Herri xehea izan du kontuan eta hari hitz egiten dio, Arantzazuko begiratoki zoragarritik.

Mintzo berrien bila izenburua jarri dion sarrerakoa Ebanjelioko hitz batzuekin hasten du; honelako liburu baterako era-erara datozen hitzekin: Sartaldean lainoa ikusi orduko, "Eurria dator" esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hego-haizea denean, berriz, "Sargoria dugu" esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nola ez diozue garai honi?

(Nazareteko Jesus maisuarena, Lk 12, 54-56).

Nork mugitzen du Pazkoa?

Apirilaren lehen egunean urteak egiten dituen gure adiskide bat mutikotan pozez zorutzen omen zegoen, bere egunean Pazko jaia zelako. Urtero hala izango zelakoan, baina hurrengo urtean apirilaren 1a astegun buruzuria... Kezkaz zegoen mutikoa zer gertatu ote zen, bere eguneko Pazko jai handia nork kendu ote zuen. Nork mugitzen du Pazkoa? Hona Pello Zabalaren erantzuna:

Ilargiak. Horixe da erantzuna, bai. Egutegi urteroko normalak eguzkiari begiratzen dio gehienbat. Elizak, ordea, nahiz eta egutegi urterokoarekin bat jokatu, bere egun eta festa nagusiak ilargi jokoaren mende kokatzen ditu. Horregatik, Pazkoaren inguruan ere tokatzen da bitxikeriarik, alde batetik nahiz bestekotik.

Pazkoa ez baitu Elizak asmatu. Eliza jaio baino dozena bat mende lehenagotikoa da Pazkoa. (...).

Elizak ere, bere egutegi propiala finkatzean, usadio horrixek eutsi zion tinko. Lehenagotik ere bai, baina garbi-garbi dakiguna da, 325. urtean, Nizeako Kontzilioak halaxe ospatzea agindu zuela: alegia, Pazkoa primaderako ekinozioari jarraiki datorren ilbete osteko igandean ospatu behar zela. Ekinozio udaberriko hori martxoaren 21ean izaten bada, atera kontuak!

Pazkoa, azkarren jota, martxoaren 22an egokitu daiteke; eta beranduenera jota, apirilaren 25ean. (...).

Beraz, Pazkoa noiz tokatzen den jakin nahi duzula? Erreparatu udaberriko lehen ilbeteari, eta listo! Haretxen ondoko igandean da Pazkoa. Horrek ez du hutsik!.

Ilargiak zer berri?

Gure lurreko kontuetan maiz agertzen zaigu ilargia. Dagoeneko gizakiak egin ditu bidaiak batzuk hara. Lehenengoz 1969an. Amerikarrak joan ziren haietariko batean telebistaz

ikusteko abagunea izan genuen. Gure artean bazen orduan euskaldun peto-peto bat, baserritarra eta ilargiari ongi erreparatzen ziona. Gizon argia zen, baina tradizioan ongi finkatua eta pentsaera modernoaz kutsatu gabea. Ilargirako bidaien kontuak esaten genizkion, baina alferrik! Ez zuen ezer sinesten; adarra jotzen ari ginela uste zuen. Gonbit egin genion gizakia ilargira iristen telebistan ikustera, baina bai zera! Hura han dago erantzun zigun hatzez seinalatuz eta irribarre maltzurrez... Eguraldia asmatzen oso ona zen; baserritar jakintsu eta esperientzia handikoen sen aparta zuen. Hala ere ez zen bera aurreratuko, eta erantzuna ia beti iruntzitara bueltatuz ematen zuen, hau da, ezezkako forman: -Bihar eguraldi ona izango ote degu, Luis? Eta honela erantzuten zuen gutxi gorabehera: -Ez du ematen txarra egingo duenik... Badaezpada ere baiezko biribilik ez.

Liburu bonen egileak oso kontuan hartzen du ilargia: Ilbehera eta ilgora, ilberri eta ilbete, hor ibili ohi naiz erreparatu eta erreparatu, aspertu gabe, ekarri ohi baitu nobedadetxoren bat bere martingala beti berrien artean. (...).

Hori bai, aholkurik nahi duen nornahiri ematen diodana da, mesedez, ilbetetik ilbetera neurtzeko euri eta prezipitazioak. Ez dit batere balio halako hil batean honenbeste edo horrenbeste litro euri egin duenak. Niri ardura dit ilbetetik ilbetera hartua bada. Koskak, eta nabarmenak, hortxe ageri direlako. Eguraldi jenero batetik bestera aldatzeko joera, ilargiaren koska ezagun horietan eman ohi da.

Antzinako euskaldunen artean ere ilargiarekin kontu txiki asko izan duenik badela diosku, euskalkiz euskalki hainbat izen eta aldaera izanak hori erakusten baitu. Ilargiak hainbat gauzatarako duen eragina guztiz zabaldurik dago: zubaitzak inausteko, zura egiteko, haziak ereiteko, ilea eta atzazalak mozteko ilargiari begiratzen zaio. Baratzeko landareetatik loratu behar ez dutenak ilbeheran erein behar dira, loratzen utzi behar den jeneroa, ordea, ilberrian. Hosto koxkaduna du-

ten zuhaitzak, ilbeheran inausi behar dira; bestelakoak, ilberrian. Koxka horiek ez dira hostoaren ertzari dagozkionak; hosto barruko ildo eta ildaxken koxka esan nahi da. *Ilea eta atzazalak ere ilbeheran moztu behar omen dira*, ilberriz ebakitako ilea hazi eta mehetu egiten baita. *Soroa ontzeko satsa ere ilberriz lizundu eta gogortu egiten da*. Indarra galtzen du eta lurrin batean egoten da. *Uzta biltzerakoan ere kontuan hartu behar omen da ilargia*. Ilberriko baba eta zalkeak, leka askatu eta isuri egiten dira.

Ilargiaren eragina mendeetako esperientziak irakatsita, ongi sarturik du berriak. Ilargi kontuak entzutean, jakintsu uste-ko batzuek destainazko irribarrea egin obi dute, sorginkeria balitz bezala edota zientziaz at balego bezala... Hona Naturaren Mintzoa liburuan honetaz datorrena:

Zertan datza ilargiaren eragina? Indar ahultzearena da ilbeheraren kontua. Landarea eta bizidun gizakia, barru-garbitzen, zuruntasuna lijerotzen, zalutzen eta malgutzen, izerdia medio lixi-ba egiten ari dira. Horregatik, ur gehixeago edatea ez dator batera gaizki, sendabelarren baten laguntzarekin hobe, sanjuanbelar edo millorri xorta bat, edo santiobelar puxkatxo baten tisanatxoa prestatuz, edo intsusa-lozerik bere garaian bildu bazenuen, handik xorta tiki bat botata edo... mesede egiten du, probetxuko garaia baita ilbehera oro, baina udaberri sasoikoa areago.

Koarta-temporak

Izen bonen gorabeherak azaltzen dizkigu Pello Zabalak bere liburuaren 20. eta 21. orrialdeetan. Egutegiak, inprimaturiko egutegiak, oso berriak dira gurean. Horregatik, errege egunez eman obi zuen urteko data seinalatuenean berri apaizak pulpitutik: Hausterre eguna, Garizuma, Aste Santua, Pazkoa, tokian tokiko jaiak... Orduan seinalatzen zituen temporen egunak ere. Guztia zen latinez. Honela hasten zen feria quarta temporum erit... Asteazkenari dagokion latinezko esaldi puska

borretatik hartu zuten euskaldunek koarta-tenporetako izen bitxi hori. Izena alde batera utzita, Erromako datuetatik jasozten ditu libururu honen egileak garai berezi horien aztarnak. Hona hitzez bitz:

Lehen mendetako kontuak laburbilduz, esan behar da, lehenbizi barau-egunetarako seinalatuak ageri direla koarta-tenporak. Baina, honako zehaztasun pare hau kontuan hartuta: bata, Erroma eta hango inguruetan bakarrik ospatzen dela barau hori; bestea, udaberriko barau-aldirik ez dela inon ere ageri. Beraz, ez dakigu, barauaz gain beste ospakizun berezirik egiten dutenik, pentsa genezakeen arren otoitz-egunak ere izango zirela; hori batetik; eta bestetik, 3 bider bakarrik ospatzen dituzte: ekainean, uztaren jiran; irailean, mahats-biltze inguruan; eta abenduan, hazia ereiteko garaian. (...)

Elizak urteko 3 data horiek onartu ditu, eta 4. bat sartu du garizuman, udaberri sasoirako. Eta ospakizunok kutsu bereziz jantzi nahi izan ditu: Ikusten da lehen datuetatik jada, baraua izan zela egun hauekiko lehenengo adierazgarria. Eta Erroman kultua eratzen deneko, otoitzegun berezizat seinalatuko dira.

VII. mendiaz gero, egun bauen datak finkaturik ageri dira: udaberriko tenporak Garizumako lehen asteako asteazken, ostiral eta larunbatean izango dira; mendekoste ondoko astean ere berdin: asteazken, ostiral eta larunbatean; iraileko Santakrutz ondoko asteazken, ostiral eta larunbatean; eta Eguberri aurreko asteako asteazken, ostiral eta larunbatean.

Eta zer esan eguraldiak koarta-tenporekin izan dezakeen loturaz? Alda ditzagun Naturaren Mintzoa liburuan (91-92. orr.) datozen zatitxo batzuk hona:

Eta eguraldiak zer dauka koarta-tenporekin? Zein lotura mezezi izan du? Auskalo! Horretan, Elizak ez du ezertxo ere esan eta seinalatu! Ezin, gainera! Eguraldiaren errebueltak eta gorabeherak koarta-tenporekin loturarik baldin balute edo baldin badute, hori norbaitek usnatu eta antzeman duelako da.

2000ra artean, baduela esan dute zenbaitzuek. Hori bera diot neuk. Baduela zioten horiek, erreparatu, konparatu eta halatsu doala ikusi dutelako izango da. Sinestea merezi dute, frogarik badutelako.

Ezertxoren zerikusirik ez duela diotenak, aldiz, guztiz erraza dauka: ezetz esatea nahikoa du, horrek ez baitu frogarik behar. Baietz diogunok, froga eta guzti jokatzen dugu. Ez daki-gu nondik datorren eguraldiaren eta haizeen eta tenporen lotura eta korapiloa. Baina badakigu elkarrekin dabiltzala: ahai-degorik badutela! Frogak pilatzen jarraitzekotan gara. Sinesten ez duenari ere, horixe eskatzen diogu: aproba egiteko, erreparatzeko...!

Jai batzuen lorratzean

Liburu honen egilea jaien lorratzean dabil. Jai hauek herri-jakintzaz, esaeraz, errefrauz apaindurik ageri dira. Azpi-titulua ere "Egunez egun, sasoién gurplean" jarri dio. Liburuan barrena ageri diren esaera zaharrak biltzera joz gero ere, hainbat orrialde bete daitezke. Jaien xehetasun interesgarriak daude han eta hemen. Orrialde gutxi batzuetara murriztu behar guztia eta adibide legez, bat jarriko dugu. Eta zer hautatuko dugu, bada, Karmel aldizkarirako? Uztailaren 16ko jaiá, Karmengo Ama. Karmel menditik dator kio izena. Palestina aldeko Galilea iparrean dagoen Karm-el mendi mahastidun hartatik. Karm berez mahastia baitzen, eta el hainbat hitzetan atzizkitan zerabilten horrek Jauna-Jainkoa esan nahi zuen. Horregatik, Karmel mendiaren izenak Jaunaren mahastia esan nahi zuen. Izen horretatik datoz gure Karmele eta Karmelo, Jaunaren mahastikoak.

Mendi horretan du tradizio aspaldikoa Elias igarle han egon eta bizi izan zenekoak. Mendi horretan dute beren tradizio-iturri Karmeldar lekaide-lekaimeek ere. Antzina abiatu ziren eremu zaleak haruntza, bertan otoitzean eta kontenplazioan bizi-

tzeko asmoz. Mendeen barna tokian tokiko egokierak eta beritualdiak izan badituzte ere, otoitz eta kontenplazioari itsatsiak iraun dute beti, nahiz eta apostolutzako jarduera ere ez duten baztertu. (...).

Marinelen artean, Karmengo Ama da jaiera handiena duena, nahiz eta, normala den gisara, tokian tokiko zaindariak dituzten (280. or.).

Meteorologoek zaindari, nor?

Beste ofizio batzuetakoek beren zaindaria dutenez, meteorologoek ere behar luketela zabaldu zen hotsa haien artean, eta horretan aditu gisa Pello Zabalarengana joko zuten honen kideek... Arantzazuko aro-ikerleak bi proposatzen ditu: San Maurizio eta Santa Eskolastika. San Maurizio, Germania aldeko lekaidea bera, halakoren batean, lehorte makurren bat nozitu zutelako, euri ongarrria ekarri omen zuena. Santa Eskolastika San Benitoren arreba bikia dugu. Behin, Benito bere arrebarengana joan omen zen bisita egitera, urtero bezala. Alde egiteko zela, Eskolastikak berarekin eduki nahi zuen luzaroago, baina Benitok ezetz: joan beharra zuela... Eta ospa egiteko zegoenean, puntuan, egundoko ekaitza sortu zen pare-parean, tximist eta oinaztu, trumoi eta erauntsi, goiak behe-ra lehertzeraino. Horrela Benitok ban gelditu behar izan zuen, eta Eskolastikak: "Eskerrak, Jaunak nire arrenak entzun dituen: ez diot alferrik eskatu".

Nik neuk hirugarren bat ere gehituko nuke: San Elias Profeta. Hiru urteko lehortea izan zen Israelen. Hona hemen nola kontatzen digun lehorte baren amaiera Erregeen liburuak:

"Gero, Eliasek esan zion Akabi:

—Zoaz jatera eta edatera, zaparrada handi baten hotsa sumatzen da eta.

Hala, Akab jatera eta edatera joan zen; bitartean, Karmel mendiaren gailurrera igo zen Elias eta ahuspeztu, aurpegia be-laun artean jarriz. Orduan, agindu zion bere mutilari:

–Igo eta begira itsasaldera.

Igo zen mutila eta esan zuen:

–Ez dago ezer.

Eliasek zazpi bider esan zion itzultzeko. Zazpigarrenean morroiak esan zuen:

–Esku-arra beteko laino koskor bat dator itsasaldetik.

Eliasek esan zion:

–Igo eta esaiok Akabi atontzeko gudu-gurdia eta jaisteko, zaparradak bidea itxi baino lehen.

Zerua geroz eta ilunago jarri zen, hodei eta aldagoi-haizea-ren eraginez, eta izugarrizko erauntsia egin zuen” (1 Erg 18,41-46).

Guk ere hementxe amaitu behar dugu Naturaren Mintzoa li-buruan barrena egin dugun bidaiatxoa. Goazen bizkor euriak barrapa ez gaitzan.

Luis Baraiazarra Txertudi